

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

Eskola-ingurunean antolatutako hezkuntza-jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarriak, 2024-2025 ikasturtea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 31n eginiko ohiko bileran, onetsi egin ziren eskola-ingurunean antolatutako hezkuntza-jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarriak, 2024-2025 ikasturtea.

Urriaren 1eko 39/2015 legearen 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oinarri horiek argitaratzen dira guztiek jakin dezaten.

2023ko urriaren 1ean sartu zen indarrean Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokor berria. Horren bidez, Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezarri ziren. Ordenantza berria ALHAOn argitaratu zen 2023ko uztailaren 28an, eta udalaren webgunean dago eskuragarri, gardentasun-printzipioa aplikatuz. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten erakundeek bertara jo beharko dute, eskaerak non eta nola aurkeztu behar diren jakiteko, eta eskaera egiten duten erakundeen baldintzak eta betebeharrak, dirulaguntzak justifikatzeko modua, inprimakiak eta abar ezagutzeko.

1. Sarrera

Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea da, eta horrek berekin dakar bertan bizi diren pertsona guztien prestakuntzarekin, sustapenarekin eta garapenarekin konpromisoa hartzea. Ikuspegi horretatik, jardunbide inklusibo bidez, bere egiten du aniztasunari erantzun beharra, jardunbide inklusibo horiek pertsona guztiek, aukera-berdintasunez, ekitatez eta bidezkoa denez, kalitatezko hezkuntza eskura izatea bermatu behar dutela ulertuta; praktika inklusibo horiek mehatxatuen dauden kolektiboetan jartzen dute arreta, hau da, desorekak eragin ditzaketen egoera gehien pairatzen dituzten kolektiboetan. Dirulaguntzen deialdi hau testuinguru horretan planteatzen da, hain zuzen.

2. Dirulaguntzen plan estrategikoa

Dirulaguntzen deialdi hau 2022ko urtarrilaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) jasota dago. Dirulaguntzen ildo honi dagokionez, 2022ko martxoaren 1ean eta uztailaren 15ean aldatu zen Plan Estrategiko hori.

Dirulaguntzen deialdiaren xedea da eskola-ingurunean antolatutako hezkuntza-jarduerak egiten laguntzea eta erakunde hartzaileen esku-hartzea sustatzea hezkuntza-komunitatean, ikasleen prestakuntza integralaren eta eskola-arrakastaren faktore nabarmena direlako.

3. Erakunde onuradunak

Deialdi honetan parte hartu dezakete eta laguntzen onuradun izan daitezke honako erakunde hauek:

— Ikasleen Gurasoen Elkarteak, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Derrigorrezko Hezkuntzako Vitoria-Gasteizko ikastetxeak.

– Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Derrigorrezko Hezkuntzako mailak dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako irakaskuntza-kooperatibak, baldin eta guraso-elkarteak ez badute eta horien berezko funtzioak beren gain hartzen badituzte.

– Vitoria-Gasteizko Helduen Hezkuntzako (HHI) ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteak.

Gurasoen Elkarteak eta irakaskuntza-kooperatibak horiek kide diren federazioak ordezkatu ahal izango ditu, baldin eta ordezkaritza bi alderdiek sinatuta ematen bada.

4. Baliabide ekonomikoak

Gehienez ere 195.000,00 euroko kreditua zuzendu du deialdi honetara Kultura eta Hezkuntza Sailak (Hezkuntza Zerbitzua), 2024-2025 ikasturteari begira. Honela banatzen da zenbateko hori:

– 75.000,00 euroko kreditua gehienez 2024rako udal-aurrekontuan Kultura eta Hezkuntza Sailari dagokion 2319 03 3261 48010 aurrekontu-sailaren kargura.

– 120.000,00 euroko kreditua gehienez, betiere 2025eko udal-aurrekontuan kreditu egokia eta aski badago.

5. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagunduko dira deialdi honen xede diren erakundeek antolatu eta 2024ko irailaren 1etik 2025eko uztailaren 31ra bitartean eskola-ingurunean egiten diren hezkuntza-jarduerak. Diruz lagunduko diren hezkuntza-jarduerak eremu osagarriaren, eskolaz kanpoko eremuaren eta opor-eremuaren barruan kokatuko dira, eta ikasleei eta/edo haien familiei zuzenduta egongo dira.

6. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea eta tokia

6.1 Aurkezteko epea: eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea oinarri hauen deialdiari dagokion laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2024ko irailaren 30era arte egongo da irekita (egun hori barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

6.2 Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko lekua: eskabideak herritarrentzako arreta-bulegoetan aurkeztu daitezke, Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, bai eta legez aurreikusitako gainerako moduetan ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren arabera.

7. Aurkeztu beharreko dokumentuak

Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

– Dirulaguntzaren eskabidea, erakunde eskatzaileko lehendakariak sinatuta, udalaren web orrian dagoen ereduaren arabera: www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak.

– 1. eranskina. Eskabide berbera udaleko beste sail edo zerbitzu batzuetako deialdietara aurkeztu ez dela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena. (1. eranskina oinarri hauei atxikia eta udal webgunean eskuragarri).

– 2. eranskina. Aurreikusitako hezkuntza-jardueren zerrenda. Ikastetxeko Organo Gorenaren onspena izan beharko du jardueren proposamenak, eta 2024-2025 ikasturteko urteko planaren barruan sartuta egon behar du. (2. eranskina oinarri hauei atxikia eta udal webgunean eskuragarri).

– 3. eranskina (hautazkoa). Ordezkaritza emateko agiria, Gurasoen Elkartearen edo irakaskuntza-kooperatibaren eskabidea eta dokumentazioa kide den federazioak aurkezten baditu. (eranskina oinarri o hauei atxikia eta udal webgunean eskuragarri).

Hezkuntza Zerbitzuan dirulaguntzaren eskaera lehenengo aldiz aurkezten denean edo datuak aldatzen direnean, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

– Eskabidea sinatzen duenaren ordezkariaren egiaztapena eta erakunde eskatzailearen legezko ordezkari den pertsona fisikoaren NAN-aren edota Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia.

– Erakunde eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorrean edo Euskadiko Kooperatiben Erregistroan legez eraturata dagoela egiaztatzen duen agiria.

– Erakunde eskatzailearen estatutuen fotokopia.

– Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

– Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua; agiri horretan, kontu-zenbakia eta kontuaren titularra agertuko dira, kontuan hartuta, betiere, erakunde eskatzaileak izan behar duela titularra.

Eskabideak deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak interesdunari hamar eguneko epean zuzentzeko eskatuko dio, eta adieraziko dio hala egiten ez badu eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eman beharreko ebazpenaren ondoren.

8. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Elkarte onuradunek ezin izango dute proiektu bera aurkeztu Udaleko beste sail edo zerbitzu batzuen dirulaguntzetarako deialdietara.

Deialdi honen barneko dirulaguntza hau bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, dirulaguntzen bidez eta beste diru-iturri batzuetatik lortzen den finantzaketaren zenbatekoak ezin du gainditu, inoiz ere, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa.

9. Dirulaguntza emateko prozedura

Hainbanaketa-erregimenean emango dira dirulaguntzak, deialdi honen 10. oinarrian ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideak jaso, baldintzak egiaztatu eta eskabide horiek izapidetzeko onartu ondoren, balioespen-txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena egingo dira, oinarri hauetan zehaztutako irizpideen arabera.

Xede horretarako, kide anitzeko organo bat eratuko da, eskabideak balioesteko eta dirulaguntzak emateko proposamena egiteko eskumena izango duena. Hezkuntza Zerbitzuko buruak, Hezkuntza Zerbitzuko Hezkuntza Ekintzen ataleko arduradunak eta atal horretako teknikari batek osatuko dute organo hori.

Halaber, Hezkuntza Zerbitzuak egingo ditu, ofizioz, beharrezkotzat jotzen diren jarduketa guztiak, dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamenerako kontuan hartuko diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko.

Tokiko Gobernu Batzarrak izango du eskumena dirulaguntzak emateko.

10. Dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa atal honetan aurreikusitako banaketa-sistema aplikatuz zehaztuko da, eta ezingo du gainditu, inola ere, erakunde onuradunak jasandako gastu errealaren ehuneko 100.

Hauxe izango da banaketa-sistema:

a) Deialdiko kredituaren ehuneko 25 onartutako eskabide guztien artean banatuko da, zati berdinetan.

b) Deialdiko kredituaren ehuneko 55 onartutako eskabideen artean banatuko da, ondorengo atal hauetako bakoitzean erakunde eskatzaile bakoitzak lortu duen puntuazio osoaren arabera:

– Ikastetxean matrikulatutako ikasleei dagokien puntuazioa. Erakunde eskatzaileari Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta derrigorrezko hezkuntzako edo, hala badagokio, HHIko ikastetxe publikoan matrikulatutako ikasleen kopurua adina puntu emango zaizkio, dirulaguntza eskatzeko epea amaitzen den unean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako azken estatistika-dokumentazio ofizialaren arabera.

– Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta derrigorrezko hezkuntzan edo, hala badagokio, HHIko ikastetxe publikoan matrikulatutako ikastetxeko ikasle bekadunen kopurua bider 3 eginda ateratzen den puntuazioa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako elkarteen kasuan, puntuazio hori bider 2 egingo da, eta ikastetxeak Eraldatzen programan parte hartzen badu, berriz ere bider 2 egingo da.

Bekadun ikasletzat hartuko da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren beka jaso duen ikaslea, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren arabera. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dirulaguntza eskatzeko epea amaitzen denean emandako azken estatistika-dokumentazio ofiziala hartuko da kontuan.

Atal honetan, erakunde eskatzaile bakoitzari esleitutako puntuazioa faktore konstante batez biderkatuko da. Faktore hori honela aterako da: banaketaren xede den zenbateko osoa zati erakundeei emandako puntuen batura osoa.

c) Deialdiaren kredituaren ehuneko 20 hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kopuruaren arabera banatuko da. Erakunde eskatzaile bakoitzari erreferentziako ikastetxean Haur Hezkuntzako eta Derrigorrezko Hezkuntzako bigarren zikloan matrikulatutako ikasle kopurua adina puntu emango zaizkio, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako datuetan oinarrituta. Puntuazio hori faktore konstante batekin biderkatuko da, faktore hori honela lortuko da: banatu beharreko kopuru osoa zati erakunde guztiei emandako puntuazioaren batura osoa.

Dirulaguntzen deialdi honetarako dagoen kredituaren banaketa horrela egingo da:

– Erakunde onuradun bakoitzari emango zaion dirulaguntzaren zenbateko osoa a), b) eta c) atalak batuta zehaztuko da. Gehieneko zenbatekoa 7.500,00 eurokoa izango da.

– Gehieneko zenbatekoaren irizpidea aplikatu ondoren, ateratzen den kopurua diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoa lortu ez duten erakunde eskatzaileen artean banatuko da. Horretarako, b) atalean ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

– Aurreko irizpidea aplikatu ondoren, ezarritako gehieneko kopurua gainditzen bada, irizpide hori eta dagokion kalkulu-prozesua behar beste aldiz errepikatuko dira.

11. Ebazteko eta jakinarazteko epea

11.1. Deialdiaren ebazpena gehienez hiru hilabeteko epean emango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ez bada, dirulaguntzaren eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

11.2. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udaleko iragarki-oholean egingo dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraikiz.

11.3. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; bestela, edozein unetan jarri ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hala ere, interesdunek egokitzen jotzen duten beste edozein gauza dezakete, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

12. Ebazpenaren aldaketa

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 64. artikulua arabera, laguntza emateko ebazpena eman ondoren, onuradunak haren edukia aldatzeko eskatu ahal izango du, oinarri arautzaileetan horretarako aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira, legearen 17.3 l) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta hori baimendu ahal izango da, baldin eta hirugarrenen esku-bideak kaltetzen ez baditu.

13. Dirulaguntzen ordainketa eta justifikatzeko modua

13.1. Dirulaguntzaren ordainketa: udalak dirulaguntzaren zenbatekoa bi ordainketa aurre-ratutan ordainduko du.

– Lehenengoa, 2024ko aurrekontuaren kargura.

– Bigarrena, 2025eko aurrekontuaren kargura. Bigarren ordainketa hori 2025erako udal-aurrekontuan xede horretarako kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende egongo da.

Erakunde onuradunek Hezkuntzako Udal Zerbitzuak egin beharreko kontrol- eta egiaztapen-jarduerak bete beharko dituzte, bai eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontu Hartzailletza Nagusiari dagozkion finantza-kontrollekoak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari buruz otsailaren 5eko 1/1998 Legean edo eskumen hori esleitua duten beste organo batzuetan aurreikusitakoak ere.

Nolanahi ere, Hezkuntza Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatze fasean, erakunde onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa azkenean gauzatutako eta justifikatutako zenbatekoarekin bat datorrela egiaztatuko du. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da. Dena den, behar ez bezala justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta dagozkien berandutze-interesak itzuli egin beharko dituzte, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 b) eta c) artikuluetan ezarritako kasuetan.

13.2. Dirulaguntzaren justifikazioa: 2024-2025 ikasterterako emandako dirulaguntzaren justifikazioa bi fasetan egingo da:

1. fasea. Justifikazio orokorra: fase honen epea 2025eko irailaren 20an amaituko da. Fase honetan, ez da fakturarik aurkeztuko, ez eta horien ordainketa egiaztatzen duen beste agiririk ere. Ondorengo hauek soilik aurkeztuko dira:

– 4. eranskina. Garatutako hezkuntza-jardueri eta lortutako emaitzei buruzko memoria. (4.eranskina oinarri hauei atxikia eta udal webgunean eskuragarri).

– 1JS eranskina. Justifikazio-kontu sinplifikatua. (1JS eranskina oinarri hauei atxikia eta udal webgunean eskuragarri).

– Publizitate-euskarrien zerrenda eta laginak (liburuxkak, iragarkiak, etab.). Horietan, Vitoria-Gasteizko Udalaren logotipoa agertuko da, erakunde laguntzaile gisa.

– Euskararen erabilerari buruzko jarraipen-fitxa, diruz lagundutako zerbitzua garatzeko erabilitako euskarrietan hizkuntza ofizialak idatziz erabiltzeari buruzkoa, bai eta hizkuntza horiek ahoz erabiltzeari buruzkoa ere (fitxa oinarri hauei atxikia eta udaleko webgunean eskuragarri).

2. fasea. Hala eskatzen zaien erakunde onuradunek eman beharreko agiriak.

2025eko irailaren 20aren ondorengo lehen astean hautatuko dira Hezkuntza Zerbitzuak egiaztatuko dituen erakunde onuradunak. Egiaztapen horrek izapidetzen diren espedienteen ehuneko 30i eragingo dio gutxienez, eta horien zenbatekoak dirulaguntzen deialdi honetara bideratutako aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren ehuneko 30 adierazi behar du gutxienez.

Erakunde onuradunak hautatzeko, lehenik eta behin, ordezkatzan dituzten ikastetxeen izen ofizialen zerrenda egiten da, hurrenkera alfabetikoan, eta, ondoren, ausaz beherantz biribilduz abiatutako laginketa sistematikoko prozedura baten bidez, egiaztapena aplikatuko zaien erakundeak zehazten dira. Hurrenkera alfabetikoa "P" hizkiarekin hasiko da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2024-2025 ikasturtean ordezkapenak kudeatzeko prozesuan baita urtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan ere zozketa bidez ezarri duten letra (Ebazpena 2023ko urriaren 13an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 196. zenbakian).

Laginketa sistematikoaren prozedura metodo bat da, eta metodo horren bidez, laginketa-tarte bat lortzeko, espediente-kopurua –dirulaguntza eman zaien erakundeen kopurua– laginkopuruaz –izapidetutako espedienteen ehuneko 30– zatitzen da. Ondoren, ausaz aukeratzen da laginaren lehen elementua, eta, gero, laginketa-tartetik eta laginaren lehen elementutik abiatuta, lagina osatuko duten gainerako erakundeak hautatzen dira). Adibidez: erakunde onuradunen kopurua 27 bada eta egiaztatutako erakundeen gutxieneko ehuneko 30 bada (9 erakunde), laginketa-tartea, hau da, aurreko bi zenbakien arteko zatidura, 3 da. Ondoren, ausaz, 1etik 3ra bitarteko zenbaki bat aukeratzen da. Aukeratutako zenbakia, adibidez, 2 bada, egiaztatu beharreko erakundeen lagina 2, 5, 8, 11, 14, 17, 20, 23 eta 26 espedienteek osatuko dute. Espediente horien zenbatekoa aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren ehuneko 30 baino txikiagoa bada, beste zenbaki bat aukeratuko da ausaz, eta modu berean jokatuko da.

Hautatutako erakunde onuradunei, hamar egun balioduneko epean, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa egiaztatzeko eskatuko zaie, jatorrizko fakturak eta horien ordainketa egiaztatzen duten gainerako egiaztagiriak aurkeztuz. Hori guztia erakunde onuradunaren izenean egin behar da, diruz lagundu daitezkeen gastuei egokitu behar zaie, eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatu behar da.

Diruz lagundutako jardueretako langileen eta Gizarte Segurantzaren gastuak justifikatzeko, nominak RNT (langileen zerrenda nominala) eta RLC (kotizazioen likidazio-zerrenda) atxikiko zaizkio elkarteari edo onuradunari, dagozkion ordainketa-justifikazioekin batera. Era berean, PFEZ atxikipenen 110 hiruhileko ereduak eta/edo urteko 190 ereduak aurkeztuko dira, dagozkien ordainketa-egiaztagiriarekin batera.

Garatutako jarduerak beste bide batetik egiaztatu ezin direnean soilik onartuko dira hartze-agiriak. Nolanahi ere, hartze-agiria sinatzen duen pertsonak ez du enpresaburua edo profesionala izan behar; izan ere, hala balitz, dagokion faktura egin eta entregatu beharko luke. Hartze-agiriak honako datu hauek izan behar ditu:

– Jaulkitzailearen eta erakunde hartzailearen izena eta abizenak, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) eta helbidea.

– Eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira.

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokion atxikipena (PFEZ). Ogasunari dagokion atxikipenaren ordainagiria ere erantsiko da.

– Tokia, data eta pertsona edo erakunde hartzailearen sinadura.

Ezarritako justifikazio-epea igaro eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, bai 1. fasean, bai 2. fasean, Hezkuntza Zerbitzuak onuradunari eskatuko dio hamabost egun balioduneko epe luzaezinean aurkezteko. Justifikazioa aurrez ezarritako epean aurkezten ez bada, itzulketa eskatuko da eta, hala badagokio, dagokion zehapen-espeditentea hasiko da. Justifikazioa epe horretan aurkezteak ez du onuraduna salbuesten izan ditzakeen zehapenetatik.

14. Erakunde onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun diren erakundeek honako betebeharrak dituzte:

– Diruz lagundutako jarduerak eragin ditzakeen arriskuen ardura hartzea eta, hala badagokio, aseguru egokia hitzartzea.

– Diruz lagundutako proiektuak irisgarriak diren lokal edo espazioetan egingo dira, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak xedatzen duenarekin bat etorrira (EHAA, 1997ko abenduaren 24koa); eta, horrez gain, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri-inguruen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzen buruzkoak (EHAA, 2000ko ekainaren 12koa), garatutako arau teknikoak bete beharko dira.

– Diruz lagundutako jarduerak eta proiektuak liburuxken, kartelen, buletin eta blog elektroniko bidez nahiz oro har herritarrei zuzendutako beste edozein euskarri bidez zabaltean, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, euskara eta gaztelania, eta hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzen direla bermatu beharko da. Baldintza hori betetzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da. Betebehar horren jarraipena egingo da, erakunde onuradunak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuz.

– Sexu Delitugileen Erregistro Orokorrean deliturik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria: urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, Adingabearen Babes Juridikoarenak, Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea hein batean aldatzen dituenak (haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen 26/2015 Legeak, uztailearen 28koak, aldatu zuen) eta Boluntariorik ez buruzko 45/2015 Legeak, urriaren 14koak, eta Haurrak era nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak haxe xedatzen dute: normalean adingabeekin egotea eskatzen duten lanbide, ofizio eta ekintzetan sarbidea izateko baldintza izango da epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik zigorrik jaso ez izana. Horretarako, dirulaguntzaren onuradun izan diren erakundeek jarduera horiek gauzatzeko kontratatutako langileei zera eskatuko diete: sexu delitugileen erregistro nagusiaren ezezko ziurtagiria, Erregistro horrek berak emana. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, ziurtagiri horrez gain, beren nazionalitateari dagokien herrialdeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ezezko ziurtagiri horiek aurkezteko eskatu ahal izango die udalak erakunde onuradunei edozein unetan.

– Ez sortzea zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa dakarren programa, proiektu edo jarduerarik.

– Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean jasotako gainerako betebeharrak.

15. informazioa eta aholkularitza

Deialdi honen esparruan dirulaguntza eskatzeko interesa duten elkarteei informazioa eta aholkua emango die Hezkuntza Zerbitzuak. Argibide-eskaerak: Carlos Angulo García 945 161509 cangulo@vitoria-gasteiz.org (Carlos Angulo García) edo 945 161230 hezkuntza@vitoria-gasteiz.org.

16. Itzultzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan adierazitako kasuetan, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, eta berandutze-interesak eskatuko dira, dirulaguntza ordaintzen denetik itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera arte, hura baino lehenagokoa bada, dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean eta administrazio-prozedura erkidean xedatutakoaren arabera.

Jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli behar badira, Kutxabank-eko udal-kontu honetan egingo dira: ES03 2095 0611 03 1090952416; ondoren, diru-sarreraren egiaztagiria aurkeztu behar da Hezkuntza Zerbitzuan.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko ekainaren 7an

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

1. Eranskina. Eskaeraren osagarria

Anexo 1. Complementario a la solicitud de subvención

Kultura eta Hezkuntza Saila
Departamento de Cultura y Educación
Hezkuntza Zerbitzua
Servicio de Educación

informacion@vitoria-gasteiz.org

SAED_001

1. ERANSKINA – ANEXO 1 ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA - DECLARACIÓN RESPONSABLE

ADIERAZPENA EGINTEN DUENAREN DATUAK – DATOS DE LA PERSONA QUE HACE LA DECLARACIÓN

Izen-deiturak – Nombre y apellidos	NAN/AIZ – DNI/NIE	
<input type="text"/>		
Elkartean duen kargua – En calidad de		
<input type="text"/>		
Elkartearen izena – De la asociación	IFZ – NIF	Telefonoa – Teléfono
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Elkartearen helbidea (kalea, zenbakia, solairua, posta-kodea eta herria) – Domiciliada en (calle, número, piso, código postal y población)		
<input type="text"/>		
Helbide elektronikoa – Dirección electrónica	Inskripzio-data – Fecha de inscripción (*)	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	

(*) Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroan - En el correspondiente registro de la Comunidad Autónoma de Euskadi

Erantzukizunez ADIERAZTEN DU: – DECLARA responsablemente:

- Ez duela ekintza berdinetarako dirulaguntzaren eskaerarik egin Udaleko beste Sail edo Zerbitzu batean.
Que no ha solicitado subvención para las mismas actividades a ningún otro Departamento o Servicio municipal.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de

Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua – Firma y sello de la entidad solicitante

(*)

Inprimakia sinatu aurretik, hurrengo orrialdean agertzen den datuen babesari buruzko informazioa irakurri beharko duzu.

Antes de firmar el formulario, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

1. Eranskina. Eskaeraren osagarria

Anexo 1. Complementario a la solicitud de subvención

Kultura eta Hezkuntza Saila
Departamento de Cultura y Educación
Hezkuntza Zerbitzua
Servicio de Educación

informacion@vitoria-gasteiz.org

SAED_001

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK - CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto de la Pers. Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang Margolariarena kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Pers. Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Diru-laguntzak emateko deialdi honetan aurkeztutako eskabideak eta dokumentazioa kudeatzea, eta laguntzak emateko prozedurak izapidetzea, 39/2015 Legean, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera. <i>Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada a esta convocatoria de Subvención y tramitar los procedimientos de concesión de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkiokete –soil-soilik Gasteizko Udalaren datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duen xedeak betetzeko–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a terceras entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades y organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko legez ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos. Igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la persona Delegada de Protección de Datos.</i>



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Eskola-eremuan antolatutako hezkuntza-jarduerak diruz laguntzeko deialdia
Convocatoria de subvenciones para actividades educativas organizadas en el ámbito escolar

Kultura eta Hezkuntza Saila
Departamento de Cultura y Educación
Hezkuntza Zerbitzua
Servicio de Educación

informacion@vitoria-gasteiz.org

SAED_002

ZIURTATZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK: IKASTETXEKO ZUZENDARIA ETA ORDEZKARITZA ORGANO GORENEKO (OOG) PRESIDENTEAK
DATOS DE LA PERSONA QUE CERTIFICA: DIRECTOR/A Y PRESIDENTE/A DEL ÓRGANO MÁXIMO DE REPRESENTACIÓN (OMR) DEL CENTRO

Izen-deiturak – Nombre y apellidos

NAN/AIZ – DNI/NIE

Ikastetxea - Centro educativo

ZIURTATZEN DU – CERTIFICA

- Goian zerrendatutako hezkuntza-ekintzen proiektua onartua izan dela OOGean.
Que el proyecto de actividades educativas descrito ha sido aprobado por el OMR del centro.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de

Sinadura eta zigilua (Zuzendaria) – Firma y sello (Director/a)

(*)

Inprimakia sinatu aurretik, hurrengo orrialdean agertzen den datuen babesari buruzko informazioa irakurri beharko duzu.

Antes de firmar el formulario, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Eskola-eremuan antolatutako hezkuntza-jarduerak diruz laguntzeko deialdia
Convocatoria de subvenciones para actividades educativas organizadas en el ámbito escolar

Kultura eta Hezkuntza Saila
Departamento de Cultura y Educación
Hezkuntza Zerbitzua
Servicio de Educación

informacion@vitoria-gasteiz.org

SAED_002

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK - CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto de la Pers. Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Pers. Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Diru-laguntzak emateko deialdi honetan aurkeztutako eskabideak eta dokumentazioa kudeatzea, eta laguntzak emateko prozedurak izapidetzea, 39/2015 Legean, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan aurrekustitakoaren arabera. <i>Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada a esta convocatoria de Subvención y tramitar los procedimientos de concesión de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunikatu dakizkiote –soil-soilik Gasteizko Udalaren datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duen xedeak betetzeko–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a terceras entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades y organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurrekustitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos. Igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la persona Delegada de Protección de Datos.</i>



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Eskola-eremuan antolatutako hezkuntza-jarduerak diruz laguntzeko deialdia
Convocatoria de subvenciones para actividades educativas organizadas en el ámbito escolar

Kultura eta Hezkuntza Saila
Departamento de Cultura y Educación

Hezkuntza Zerbitzua
Servicio de Educación

informacion@vitoria-gasteiz.org

SAED_003

3. ERANSKINA – ANEXO 3 ORDEZKARITZA EMATEA – OTORGAMIENTO DE REPRESENTACIÓN

ORDEZKARITZA EMATEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK – DATOS DE LA ENTIDAD QUE OTORGA LA REPRESENTACIÓN

Erakundearen izena – Nombre de la entidad

IFZ – NIF

Helbide elektronikoa – Dirección electrónica

Telefonoa – Teléfono

ORDEZKARITZA EMATEN DUEN ERAKUNDEAREN LEGEZKO ORDEZKARIA REPRESENTANTE LEGAL DE LA ENTIDAD QUE OTORGA LA REPRESENTACIÓN

1. abizena – Apellido 1

2. abizena – Apellido 2

Izena – Nombre

IFZ – NIF

Telefonoa – Teléfono

Kargua – En calidad de

ORDEZKARITZA ONARTZEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK - DATOS DE LA ENTIDAD QUE ACEPTA LA REPRESENTACIÓN

Erakundearen izena – Nombre de la entidad

IFZ – NIF

Helbide elektronikoa – Dirección electrónica

Telefonoa – Teléfono

ORDEZKARITZA ONARTZEN DUEN ERAKUNDEAREN LEGEZKO ORDEZKARIA REPRESENTANTE LEGAL DE LA ENTIDAD QUE ACEPTA LA REPRESENTACIÓN

1. abizena – Apellido 1

2. abizena – Apellido 2

Izena – Nombre

IFZ – NIF

Telefonoa – Teléfono

Kargua – En calidad de

PROZEDURA HONETAN, ORDEZKARI DEN ERAKUNDEAK HONAKO AHALMEN HAUEK GAUZATU DITZAKE: EN EL PRESENTE PROCEDIMIENTO LA ENTIDAD REPRESENTANTE PUEDE EJERCITAR LAS SIGUIENTES FACULTADES:

- **Eskaerak egitea.**
Formular peticiones y solicitudes.
- **Eskatutako datuak eta agiriak aurkeztea.**
Aportar los datos y documentos solicitados.
- **Era guztietako komunikazioak eta jakinarazpenak jasotzea.**
Recibir todo tipo de notificaciones y comunicaciones.
- **Idazkiak eta alegazioak aurkeztea.**
Presentar escritos y alegaciones.
- **Eta, orokorrean, prozedura horretan ordezkatupei dagozkien jarduera guztiak egitea.**
Realizar cuantas actuaciones correspondan a la entidad representada en el curso de dicho procedimiento.



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Eskola-eremuan antolatutako hezkuntza-jarduerak diruz laguntzeko deialdia
Convocatoria de subvenciones para actividades educativas organizadas en el ámbito escolar

Kultura eta Hezkuntza Saila
Departamento de Cultura y Educación
Hezkuntza Zerbitzua
Servicio de Educación

informacion@vitoria-gasteiz.org

SAED_003

ORDEZKARITZA ONARTZEA - ACEPTACIÓN DE LA REPRESENTACIÓN

Idazki hau sinatuta, ordezkari den erakundeak onartu egiten du emandako ordezkaritza eta ordezkaritza eman duen pertsonaren sinadura benetakoa dela aitortzen du.

Con la firma del presente escrito la entidad representante acepta la representación conferida y responde de la autenticidad de la firma de la persona otorgante.

APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK - NORMAS APLICABLES

- **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 5. artikulua.**
Artículo 5 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de

Ordezkaturako erakundea - *Por la entidad representada*

Erakunde ordezkaria - *Por la entidad representante*

(*)

Inprimakia sinatu aurretik, hurrengo orrialdean agertzen den datuen babesari buruzko informazioa irakurri beharko duzu.

